

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI), 2005EKO MARTXOA


Euskal AEko industriako jarduera %1,4 jaitsi zen 2005eko martxoan

2005eko lehenengo hiruhilekoan izandako bilakaerak %0,5eko atzerakada izan zuen, aurreko urteko aldi berdinarekin alderatuta

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2005eko martxoan, lan egutegiko termino homogeneotan, %1,4 gutxitu zen Euskal AEko industriako jarduera, 2004ko hil berdinen aldean. Ondorioz, lehenengo hiruhileko horretako metatua industriako jarduera %0,5 jaitsi zen, aurreko urteko denboraldi berdinarekin alderatuta.

Urtaroen eragina zuzenduta, industriako produkzioa %0,2 jaitsi zen 2005eko martxoan, urte bereko otsailarekin alderatuta, eta jaitsierak azken bi hiletan izandako joera positiboa aldatu zuen.

Euskal AEko Industriako Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileroko hazkunde zuzendua



Iturria: Eustat

Sektore-bilakaera

Sektoreka eta industria-sektore handien sailkapenaren arabera, 2005eko martxoko indizearen bilakaerak *ekipo-ondasunetan* (%7,6) bakarrik izan zuen hazkundera. *Kontsumo-ondasunak* %9,0 jaitsi ziren: %13,3ko urte arteko jaitsiera izan zuten *kontsumo-ondasun iraunkorrek* eta %6,8koa *kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek*. *Bitarteko ondasunek* zein *energiak* urte arteko tasa negatiboak izan zituzten, %-1,0koa eta %-14,0koa, hurrenez hurren.

2005eko lehenengo hiruhilekoa osotara hartuta, jaitsierak sektore guztietan izan ziren, *ekipo-ondasunetan* izan ezik, horiek %3 hazi baitziren. *Kontsumo-ondasunak* %4,3

jaitsi ziren, *bitarteko ondasunak* %0,7 eta *energia* %3,7; guztiak 2004ko lehenengo hiruhilekoaren aldean.

2005eko martxoan 2005eko otsailaren aldean izandako hilen arteko aldakuntza positiboa izan zen *ekipo-ondasunetan* (%3,6). *Kontsumo-ondasunak* hilen arteko %1,5eko jaitciera izan zuten; horien barruan, *kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak* %1,0 igo ziren aurreko hilaren aldean, eta *kontsumo-ondasun iraunkorrak* %6,3 jaitsi. *Bitarteko ondasunak* %0,4 jaitsi ziren eta *energia* %7,1.

Bilakaera lurralde historikoka

Lurralde historikoaren arabera, Industriako Produkzioaren Indize Orokorren urte arteko bilakaerak desberdinak izan ziren: %0,6 jaitsi zen Araban eta %3,8 Bizkaian, baina %0,8 hazi zen Gipuzkoan. Hiruhilekoaren metatua Araba %3,2 jaitsi zen, baina Bizkaia eta Gipuzkoak tasa positiboak izan zituzten, %0,1ekoa Bizkaia eta %0,6koa Gipuzkoak.

Lurraldeetako hil arteko hazkunde-tasak ere, 2005eko martxokoak 2005eko otsailekoen aldean, desberdinak izan ziren: %4,4 hazi zen Arabakoa eta %1,8 jaitsi zen Bizkaikoa eta %1,0 Gipuzkoakoa.

Taula: 2005eko MARTXOA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%).

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	mar05/mar04	At/At-1 (1)	mar05/ots05	ots05/urt05
Indize orokorra: Euskal AE	-1,4	-0,5	-0,2	0,2
Araba	-0,6	-3,2	4,4	-1,4
Bizkaia	-3,8	0,1	-1,8	-1,2
Gipuzkoa	0,8	0,6	-1,0	2,6
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	-9,0	-4,3	-1,5	-2,2
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-13,3	-4,7	-6,3	1,2
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-6,8	-4,2	1,0	-3,9
Ekipo-ondasunak	7,6	3,0	3,6	0,9
Bitarteko ondasunak	-1,0	-0,7	-0,4	0,2
Energia	-14,0	-3,7	-7,1	0,1

(1) t urteko urtariletik azken hileraren arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi berdinen aldean

Iturria: Eustat

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tlf:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-Bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp